


TXOSTENAK KUDEATZEKO PLUGINA

«Azken txostena birkargatu» funtzionalitatea (OSAKICROSS-1935)

Txosten-kudeatzailearen goiburuari botoi bat gehitu zaio, zeinak aukera ematen baitu azken behin betiko txostenaren edukiak txantilo bera duen txosten berri batera pasatzeko.



Botoi hori ikusgai egongo da, baldin eta...:

- Txantilo bera duen behin betiko txostenik bazen lehendik (txosten bat baino gehiago badaude, berriena agertuko da).
- Egungo txostena editagarria bada eta Zirriborro edo Aurrezirriborro egoeran badago [Sortuta].

Ezkutatu egingo da egungo txostena sinatuta dagoenean, behin betikotzat gordetzen denean edo editatzeko kopia bat sortzen denean (arkatzaren botoia).

Botoi hori sakatzean, baieztapen mezu bat agertuko da



Prozesuak behin betiko azken txostenaren edukia hartuko du, eta, ondoren, funtzioak eta aldagaiak balio berrienekin eguneratuko ditu.

Garrantzitsua: RIC funtzio eta elementuetatik datozen balioak eguneratuko dira, hau da, "Freskatu elementua" aukera duten guztietatik. Ez dira eguneratzen beste metodo batzuen bidez txertatutako testuak (adibidez: aurreidatzirik txetatu bada).


Aurreko txostenetik datozen sinaduren eta behin betiko daten datuak hutsik utziko dira.

PROZESU KIRURGIKOAREN PLUGINA

ESKAERA KIRURGIKOA: Ebakuntza aurreko iraungitze-data (OSAKICROSS-1935)

«Ebakuntza aurreko iraungitze-data» eremua gehitu da «interbentzioen eskaera» pantailan.

«Ebakuntza aurreko iraungitzea» eremua pantailaren eskuinaldean dago, anestesistak betetzen dituen datuen ondoan.



Eremu hori aukerakoa eta editagarria da, data eskuz sartzeko.

Ebakuntza aurreko iraungitze-data adierazten denean, ebakuntza aurreko data ere zehaztu behar da, eta iraungitze-datak ebakuntza aurreko data baino geroagokoa izan behar du. Bestela, mezu bat agertuko da, eta profesionalari jakinaraziko zaio.



ERRADIOLOGIA ESKATZEKO PLUGINA

RX bolanteen inprimaketan aldaketak egitea eta lateralitatearen zabalgarria aldatzea (PPM 80429)

X izpien bolanteen inprimaketa aldatu da, automatikoki inprimatu beharrean, eskaeraren arabera inprimatzeko.

X izpien bolanteetan destinoko zentroa gehitzen da, nahiz eta zentro berean eskatu (orain arte, zentro bera bazen, ez zen destinoko zentrorik agertzen).

Erradiologiako Bolantea / Volante Radiología			
 Osakidetza TXAGORRITXU OSPITALEA HOSPITAL TXAGORRITXU HUA-TXAGORRITXU JOSÉ,DE,ATXOTEGUI,S/N	IKK:	10646066	Jaioteguna: 23/11/2012
	CIC:		F. Naci.:
	Adina:	12	Sexua: Hombre
	Edad:		Sexo:
	Izena:	Ouways, MANSO ARBAOUJ	
	Nombre:		
	Zerbitzua:	APARATO DIGESTIVO	
	Servicio:		
Atala:	APARATO DIGESTIVO GRAL.		
Sección:			
Erizaintzako Unit.:	UE3B	Ohea:	3232
Unid,Enfermería:		Cama:	
Zerbitzutik:	APARATO DIGESTIVO GRAL.		
Del servicio:			
Profesionala:	Madrid Conde, M.Teresa		
Del profesional:			
Proba:	111	RX TORAX CON MARCAJE PEZONES	
Prueba:			
Zerbitzura:	RADIODIAGNOSTICO GRAL.		
Al servicio:			
Zentrorra:	TXAGORRITXU H.		
Al centro:			


Lateralitatea eskatzen duten erradiologia-eskaeretan, lehengo menu zabalgarria erabili beharrean, 3 aukera baztertzaile erabiliko dira (Ezkerrekoa, Eskuinekoa, Aldebikoa).

Probetas Seleccionadas				
Probeta	ID	Lateralidad	Informar	Observaciones paciente
RX PARRILLA COSTAL		☐ Izquierdo ☐ Derecho ☐ Bilateral	☐	

Bolanteen inprimaketa erradiologia-eskaeran (PPM 81750 3.3.4 bertsioa)

Zitaren zain dauden probetan inprimatzeko funtzionaltasuna bistaratzeko aldaketa.

Eskaeren laburpena pantailan bolantea inprimatzeko ikonoa agertuko da goiko eskuinaldean:




Aukera hori sakatzean, zerrendan adierazitako proben bolantea inprimatuko da.

Eskaeren kudeatzaileari egindako hobekuntzak: «Proben eskaera» pluginaren bilakaera, ekintza berean proba bat baino gehiago eskatzeko eta alde zuzenetik probak sartzeko (PPM 80429) (3.3.2 bertsioa)


Probak eskatzeko pantaila aldatu da, leiu beretik aldi berean hainbat proba eskatu ahal izateko.

Hemendik aurrera, eskaera berri bat sortzerakoan, «Proben eskaera» plugina sakatzen duzunean, pantailan hau agertuko da:




Goiko aldean, zerrenda bat agertuko da, eta, bertan, beharrezko proba guztiak gehitu ahal izango dituzu. Horrez gain, «Aurre-erredaktatuak» menu zabalgarria gehitu da oraingoan, eta, bertan, «Arrazoia» eremua bete ahal izango duzu, idatziz, orain arte bezala.


Probak hautatzeko, sakatu ezazu «Hautatutako probak» zerrendaren goiburuan dagoen "Prozedura gehitu" ikonoa.



Sakatu ondoren, pantailan beste leiu bat irekiko da, eta bertan prozedura, zentroa eta xede-zerbitzua/sekzioa hautatuko dituzu.



Gainera, probak hala eskatzen badu, Lateralitateari buruzko aukerak agertuko dira:




Pantaila honetan, eremu guztiak bete beharko dituzu, «Gehitu» botoia sakatu aurretik; bestela, mezu bat agertuko da, honako hauek adieraziz:




Proba hori egiteko, lateralitatearen berri ematea beharrezkoa bada, abisua berdin emango da, bete edo ez:



Eremu guztiak bete ondoren, sakatu ezazu «gehitu» botoia:



Prozedura bat gehitzean, hautaketa-pantaila itxi eta «Hautatutako probak» zerrenda kargatuko da, probak eskatzeko leihoan, hautatutako probarekin batera.



Aurreko prozesu beraren bidez, behar adina proba gehitu ahalko dituzu, eta, gainera, «Hautatutako probak» zerrendan bertan, proba bakoitzari oharrak eta eranskinak gehitu ahalko dizkiozu.

Oharrak gehitzeko, nahikoa izango da "Pazientearen oharrak" testu-eremuan klik egitea. Horretarako, testu-kutxa bat zabalduko da, eta bertan idatziko duzu behar duzuna. Eranskin bat gehitzeko, sakatu ezazu «Eranskinak» zutabeko «Erantsi» ikonoa.

Eskaera grabatu aurretik erantsitako proba bat ezabatu nahi baduzu, ezabatu nahi duzun probaren izenaren ondoan dagoen «Ezabatu hautaketaren prozedura» gurutze gorria sakatu.

Eskaeraren «Arrazoa» eremua betetzeko, orain arte bezala, nahi duzuna idatzi ahalko duzu, edo «Aurre-erredaktatuak» zerrenda zabalgarriko aurreagiri bat hautatu.

Eskaera egiteko bete behar diren eremu guztiak betetzeari, sakatu «gorde» botoia eta, ondoren, proba bakoitzaren egoera eguneratuko da «Hautatutako probak» zerrendan. Pantailako eremu guztiak blokeatuko dira, «Emandako eta sinatutako baimen informatua» atala izan ezik. Atal hori ikusgai egongo da, eta probei lotutako baimen informatuak sortzeko aukera emango dizu, beharrezkoa izanez gero.

Petición de Pruebas -

Pruebas Seleccionadas	Lateralidad	Estado	Observaciones paciente	Adjuntos
PIELOGRAFIA ASCENDENTE	☐ Izquierdo ☒ Derecho ☐ Bilateral	Pendiente de cita		

Prerredactados:

Motivo:

Motivo para realizar la prueba

Prioridad: ☒ Ordinaria ☐ Preferente ☐ Urgente

Fecha deseada de la cita:

Indicaciones cita

Información adicional

Alertas: ARA II; ARA II; ARA II; ARA II; ARA II; ☐

PROGRAMAS DE SEGUIMIENTO: ATENCIÓN AL PACIENTE / CRÓNICO DIABETES; ATENCIÓN AL

Tipo visita: ☒ Diagnóstica ☐ Control

Idioma: EU ES

7 Consentimiento informado entregado y firmado

Proba-eskaerako daturen bat aldatu, informazioa ikusi edo probarako bolantea inprimatu nahi baduzu, ohi bezala egin ezazu, banaka-banaka sartuta.

Petición de Pruebas -

PRUEBAS

Procedimiento:

Lateralidad:

Estado:

Centro:

Servicio-Sección:

Tipo visita: ☒ Diagnóstica ☐ Control

MOTIVO DE LA PETICION

Motivo para realizar la prueba

Prioridad: ☒ Ordinaria ☐ Preferente ☐ Urgente

Fecha deseada de la cita:

Indicaciones cita

Información adicional

Observaciones paciente

Adjuntos (1)

7 Consentimiento informado entregado y firmado

Idioma: EU ES